

# Mugimendu zapatista

**Xabier Larrazabal  
Maialen Egileor  
Olaia Gil  
Igone Fernandez**

*Kazetaritzan lizentziatuak*

***Laburpena:*** Mugimendu zapatistara hurbildu eta haren alderdirik garrantzitsuenak ezagutu eta ulertzea da lan honen helburua. Epigrafez epigrafe, mugimendu zapatistaren erradiografia egingo dugu. Halakoetan ezinezkoa gertatzen da gatazka bere osotasunean eta ñabardura guztiekin ezagutzea baina bada, behintzat, erradiografia orekatua, mugimenduaren helburuak azaldu arren, indartzeko eta zabaltzeko dituen ezintasunak berdin-berdin aitortuko dituen.

*"El silencio lo venimos a descubrir más adelante, a la hora que descubrimos que el gobierno estaba más interesado en que habláramos, no importaba que mentáramos madres, pero que dijéramos algo porque pensaba que así sabía lo que estábamos haciendo. Y cuando estamos en silencio no sabe que estamos haciendo. Un ejército que ha usado la palabra de una manera tan fundamental como arma, cuando calla, les mueve la preocupación."*

### *Marcos komandanteordea*

## **0. Sarrera**

Mugimendu zapatistara hurbildu eta haren alderdirik garrantzitsuenak ezagutu eta ulertzea da lan honen helburua, jakina baita ezinezkoa dela orrialde gutxi batzuetan urtetako gatazka baten ñabardurak eta ibilbidea oso-osorik jasotzea.

Mexikoko Iraultzara joko dugu lehendabizi, XX. mendearen hasierara, hain zuzen. Sasoi hartan herrialdeak nozitzen zuen diktadura gogorraren ezaugarriak eta mexikarrei zein neurritan eragiten zien azaldu ondoren, Emiliano Zapata eta Pancho Villak izan zuten zentzua eta pisua ulertuko dugu. Baten batek pentsa lezake mugimendu *zapatista* Zapatak berak abiatutako borrokaren jarraipena besterik ez dela, Zapataren jarraitzaile hutsak direla zapatistak. Inondik inora ez. Hain justu ere, egungo mugimendu indigenaren buru den Marcos komandanteordearen eta mende hasierako Zapataren arteko desberdintasun eta kontraesanak azpimarratzea da gure aitzineko helburua. Nolabait esatearren, Zapata *txarroi* bat zen, kapela zabaleko eta bibote luzeko zalduna; Porfirio Diaz diktadoreari kontra egitea eta lurak lantzen zituztenei itzultzea zen haren xede nagusia eta horixe izan da Mexikoko Iraultzaren zentzua. Aitzitik, eta zuria izanagatik, Mexikoko indigenen eskubideen defentsa eta kapitalismo neoliberalaren aurkako borroka du Marcosek banderatzat.

Bereizketa ongi markatuta, Marcosen beraren figuran, iraultza zapatistan eta EZLNn (Ejército Zapatista de Liberación Nacional) sakonduko dugu. Hasteko, XX. mendearen amaierako testuingurua aztertuko dugu (ez baita mende hasierako bera, noski) eta 1958ko Kubako Iraultzak, Latinoamerikako beste hainbat gerrilla eta saiakera iraultzailetan bezalaxe, honetan ere izan zuen balizko eragina azalduko dugu. Askok Che Guevararen oinordekotzat dute Marcos, baina, ikusiko dugun moduan, alde handia da haien artekoa. Heroi praktikoa, odoltsua izan zen Che, iraultzailea izatez; gogoratu Kubako Iraultza burututa eta ministro lanekin aspertuta Kongora jo zuela iraultza egitera (edo, hobeki esanda, egiten saiatzera, porrot hutsa izan baitzen hura) eta, geroago, berriz ere ministerioan aspertuta, Boliviako oihanera joan zela iraultza egiteko asmoz bertako indioek salatu zuten arte). Marcos, aldiz, heroia ludikoa da; gerrillari modura ageri zaigu, armak gainean dituela, baina apenas izan da hildakorik zapatisten eskuetan. Seguru asko, horrek bereizi du gainerako gerrilletatik eta hori izan da haren oihartzun sozialaren arrazoia.

Marcos komandanteordearen gidaritzapeko iraultza zapatistaren oinarriak eta aldarrikapenak aipatuko ditugu eta ikusiko dugu nola ideioak pixkanaka-pixkanaka hainbat komunitate indigenatan ernaldu eta hainbat gerrillafoku sortu ziren Mexikon zehar barreiatuak. Izan ere, EZLNk bokazio nazionala du eta bere mezua herrialdeko hainbat puntutan sustraitu da nahiz eta, jakina denez, Chiapasen bakarrik izan duen benetako eragin efizientea. Bertan, 1994an, izan zen altxamendua.



Emakume eta zapatista direnei ere tarte berezia eskaini nahi diegu, meritu bikoitza dutelakoan. Eta Ramona komandanteordea hartu dugu horien guztien ordezkari. 1,40 metroko altuera, kemena, indarra eta grina; horiexek Ramonaren ezaugarriak. EZLNren fundatzaileetako bat izan zen, 1994ko San Cristobal de las Casaseko hartzean aritu zen eta Emakumeen Lege Iraultzailearen sustatzaile nagusietako bat izan zen. Gainera, 1996an Mexiko DFn eginitako Indigenen Kongresu Nazionalean izan zen zapatisten ordezkari modura, nahiz eta Gobernuak aurrez debekatu. 2006an zendu zen giltzurruneko minbiziak jota, baina bere eredia ezinbestekoa izan da mugimenduaren jarraitutasuna, baita emakumeen artean ere, bermatzeko.

Errealitate honen aurrean Mexikoko Gobernuak hartu duen jarrera ere ekarri nahi dugu gure lanera. Izan ere, ez ikusiarena egitea da mandatariek aukeratu duten bidea. Chiapaseko gatazka tokian tokiko arazotzat jotzen dute eta ez dute inondik inora aitortzen indigenen mugimendua bateratua denik. Eta, horretan, baliteke arrazoia izatea. Seguru asko, horixe bera da mugimendu zapatistaren muga handienetako bat eta bere balizko krisiaren arrazoi nagusietakoa. Mexiko (eta, oro har, Latinoamerika osoa) espainiar kolonialismoak eraikitako muga politiko artifizialen ondorio da. Muga horiek, kasu gehienetan, ez datoz bat muga etniko eta kulturalekin. Horregatik arrago hutsa da Mexiko, etnia eta talde asko bere barne hartzen dituen. Orain arte behintzat, mugimendu zapatistak ez du lortu Chiapasetik kanpo benetako indarra eta oihartzuna izatea, ez du lortu indigena guztiek euren aldarrikapenak modu bateratuan egitea.

Hain berriak eta artifizialak izaki, Mexikoko mugek ez dute inongo sendotasunik eta mandatariek uste dute iraultzak herrialdearen desegitea ekarriko lukeela talde etnikoek nork bere aldetik joko luketelako eta nork bere interesak eta eskubideak defendatuko lituzketelako. Eta ez da eskuineko gobernu bat halakorik dioena; 2000ko hauteskundeek geroztik PAN (Partido de Acción Nacional) alderdi ezkertiar samarra baita boterean. Fox izendatu zuten 2000n presidente eta Calderón 2006an.

Hala, epigrafez epigrafe, mugimendu zapatistaren erradiografia egingo dugu. Esan bezala, halakoetan ezinezkoa gertatzen da gatazka bere osotasunean eta ñabardura guztiekin ezagutzea baina bada, behintzat, erradiografia orekatua, mugimenduaren helburu zintzoak azalduko ditugu, aldi berean, indartzeko eta zabaltzeko dituen ezintasunak berdin-berdin aitortuko dituen.

## **1. Aurrekariak: Mexikoko Iraultza**

XX. mendearen hasieran, Porfirio Diaz jeneralaren diktadura kontserbadore gogorraren pean bizi zen Mexiko. Horrez gain, nekazarien egoera guztiz tamalgarria zen lehendik ere, gutxi batzuen esku baitzeuden lurak. Egoera horri eman zitzaion erantzunari deitzen zaio Mexikoko Iraultza: 1910 eta 1928-29 urteen artean gertatu zen eta gizarte sektore guztiz desberdinak izan zituen protagonista. Lurraren inguruko borroka izan zen iraultzaren eragile nagusietako bat, baina garrantzitsuak izan ziren askatasunaren eta erreforma demokratikoen aldeko borrokek ere.

### **1.1. Porfirioren diktadura (1876-1911) eta lurraren arazoa**

1876an Porfirio Diaz jeneralak hartu zuen aginpidea. Porfirio Diaz militar profesionala zen, eta Benito Juarezek Maximilianoren eta inbaditzaile frantsesen gobernuaren kontra antolatutako borrokan nabarmendu zen. Porfirioren diktadurak 35 urte iraun zuen; Mexikoren egitura ekonomikoa eraberritu zuen, Estatu Batuetako kapitalismoaren laguntzarekin batetik, eta bestetik, zilar-meategi berrien aurkikuntzari eta lurpeko petrolioaren ustiakuntzari esker. Herriaren masa handiena, ordea, oparotasun horretatik kanpo geratu zen, atzerriko kapitalarentzat eta Mexikoko talde sozial pribilegiatuentzat bakarrik izan baitzen onuragarri. Horrez gain, Diazen diktadurak lur-jabeen alde egin zuen; haien aldeko legeak egin zituen, eta era horretan are larriagotu zen nekazari apalen egoera lehendik ere latza.

Porfirio Diazen diktaduraren urteetan inoiz ez bezala egin zuten gora laborantza gaien prezioek, eta horrek areagotu egin zuen klase apalen egoera larria. Langileen giro nahasia erantsi behar zaio horri, batez ere meatzarien eta burdinbide eta irundegietakoena; lan-baldintza duinak lortzeko asmoz egin zituzten protestaldiak eta grebak gogortasun izugarriaz zapaldu zituzten, eta langileen organizazio oro galarazi zen. Egoera horrek eztanda egingo zuen azkenean. Intelektual gazteen jarrera kritikoa izan zen Diaz jeneralaren erregimenaren erorketarako lehen urratsa. Porfirioren erregimena kritikatzan zutenen artean, sektore moderatuenean, iparraldeko gizon aberats bat gailendu zen, Francisco Madero, Porfirio Diaz berriz hautatzearen kontra eta benetako bozketen alde herriz herri kanpaina egiten ibili zena. Maderoren arrakastarekin larritu egin ziren agintariak, eta 1910ean, hauteskunde-kanpaina bete-betean zela, atxilotu egin zuten, herria matxinadara bultzatzen zuelako salaketapean. Fidantza ordaindu, eta Estatu Batuetan hartu zuen babes; handik antolatu zuen diktadorearen aurkako hurrengo kanpaina. Horrelaxe hasi zen iraultza prozesu luze baten lehen aldia, ezaugarri izan zituena, batetik, nekazarien protagonismoa eta, bestetik, laborantzaren erreformaren aldeko errebindikazio mugimenduaren zapalkuntza sistematikoa, aginpidera iristen ziren guztiek bideratua, Maderok aurrena, eta Huertak eta Carranzak gero.

### **1.2.- Iraultzaren aldiak**

#### ***1.2.1. Maderoren iraultza (1910-1913)***

Maderok erbestetik antolatu zuen altxamenduak berehala lortu zuen Mexiko osoko nekazarien atxikimendua, laborantzaren erreforma egiteko (lur-jabe txikiei lurra itzuli) eta indigenak babesteko aginduek erakarrita. Bi lider gailendu ziren haien artean, herriak benetako mito bihurtu zituenak: Pancho Villa iparraldean eta Emiliano Zapata hegoaldean. Haien mugimendu iraultzaileak independenteak izan ziren, eta oso une jakinetan baino ez zuten bat egin.

Maderoren eta nekazarien matxinadaren indarraren ondorioz, azkenean, Diaz diktadoreak lehendakaritza utzi eta erbestera joan behar izan zuen (1911). Madero, hiriburuan arrakastaz sartu eta bozketak egin ondoren, lehendakari hautatu zuten. Berehala izan zituen arazoak, bere gobernuaren moderazioaren eta nekazaritzaren erreforma erabateko baten eskaeraren artean sortu ziren tirabirak zirela eta; erreforma hori “Ayalaren egitaraua” zeritzanean proposatzen zen, eta haren banderapean berriz matxinatu zen Zapata, ez baitzuen bere gudarostea desegin nahi lurrak banatzen ez ziren arte. Egonkortasunik gabeko egoera horretan, Estatu Batuen esku-hartzeak eta Porfirioren erregimenera itzultzeko saiocik larriagotuta, Victoriano Huertas jeneralak, Maderoren armadako buru batek, estatu kolpea jo, Madero hil eta lehendakaritza beretu zuen.

### ***1.2.2. Huertaren diktadura (1913-1914)***

Huertaren diktadura oso laburra izan zen, bere politikagintza desegokia —gogor zapaldu zuen kontrako oro, eta gogortasun horren ondorioz, berriz elkartu ziren indar iraultzaile guztiak— eta Estatu Batuen jarrera zirela eta. Wilson lehendakariak —internazionalismo demokratikoaren idealak bultzatuta— ez zuen Huertaren gobernu onartu nahi izan; hauteskunde-prozesu bat zabaltzea eskatu zuen, eta beste herrialdeetan presioa egin zuen, erregimen berria berrets ez zezaten. Ezbehar diplomatiko batek —Huertak marine talde bat atxilotu zuen Tampicon—, eta horrekin batera, diktadorea alemanekin elkartu ahal izateak, Estatu Batuetako armada Veracruzen lehorreratzea ekarri zuen (1913). Aldi berean, Cohauilako lur-jabe aberats bat, Venustiano Carranza, matxinatu zen, eta “Guadalupeko egitaraua” aldarrikatu zuen “konstituzioaren errestituzioa” lortzeko. Herri osora zabaldu ziren matxinada armatuak: Villa Chihuahuan matxinatu zen, Alvaro Obregon —lur-jabe mestizo bat— Sonoran, eta Zapata hegoaldean. Antiklerikalismoa izan zen aldi honetako ezaugarri nagusietako bat; Mexikoko iraultza guztiaren ezaugarria ere izan zen, Elizak diktaduren eta aberatsen alde egin baitzuen, eta herriak zigortu egin zuen. Matxinada haiek Huertaren erregimenaren amaiera ekarri zuten: diktadoreak uko egin zion lehendakaritzari, eta haren ordean, Carranzak hartu zuen, aldi baterako.

### ***1.2.3. Carranzaren lehendakaritza eta nekazarien mugimenduaren zapalkuntza (1914-1917)***

Huertak lehendakaritza utzi ondoren, aldi nahasia etorri zen, talde iraultzaileak zatikatu egin baitziren berriz ere (Aguascalienteseko Konbentzioa), eta berriz hasi zen borroka armatua. Villak eta Zapatak hiriburuan sartzea lortu zuten, baina laster gailendu zitzaizkien Carranzaren osteak, Estatu Batuek babestua, hasieran Pancho Villari lagundu zioten arren. Villak traiziotzat hartu zuen hura, eta sarraldiak egin zituen mugaz bestaldean eta hegoaldeko hirietan. Wilsonen orduan, Villaren kontrako zigorekin aldiak baimendu zituen, Carranzari haren berri eman gabe, eta haiek tentsio diplomatiko larria eragin zuten, hainbeste non Lehen Mundu Gerran Alemaniaren alde

egitera bultzatu zuen Mexikoko Gobernuak. Izan ere, Estatu Batuek gerra horretan neutraltasuna galtzeko arrazoietako bat *Zimmermann telegrama* delakoaren aurkikuntza (1917-3-1) izan zen; hartan, aginduak ematen zizkion Alemaniak bere Mexikoko enbaxadoreari, Estatu Batuekiko gerra piztuko balitz, aliantza bat proposa ziezaion Mexikoko Gobernuari, Texas, Mexiko Berria eta Kalifornia berreskuratzearen truke.

#### **1.2.4. Mexiko demokraziarantz (1917-1929)**

Carranzaren gobernuak konstituzio berri bat onartu zuen (1917), sistema demokratiko bat ezartzen zuena —teorian—, eta errepublikako lehendakaritza-aldiak lau urtera mugatzen zituen. Pixkana-pixkanaka indarra galdu zuen nekazarien mugimenduak, eta herriak berreraikuntzari heldu zion, erreforma sozialeko egitarau baten bidez: laborantzaren erreforma, irakaskuntzaren sekularizatzea, langileen eskubideak bermatzea, etab. Estatu Batuen eragin ekonomikoa —petrolioaren kontzesioen eta jabetzen bidez— indartu egin zen. Baina lehendakaritzan ondorengo izateko barne-borrokek eragotzi egiten zuten egonkortasun politikoa, lehendakariaren hilketarekin amaitzen baitziren behin eta berriz: Alvaro Obregon presidentearen kontra altxa zenean ez zela haren ondorengo izango jakin zuenean, Carranza hil egin zuten; Obregonekin (lehendakari 1920-1924 urteetan), gauza bera egiten saiatu zen Adolfo de la Huerta, baina huts egin zuen, eta Plutarco Elias Calles izendatu zuten lehendakari (1924-1928). Antiklerikalismo gogor batek markatu zuen haren politika —1926an berriz ere odoleztatu zen herria, Elizaren aldekoen (“cristeros”) eta kontrakoekin (“camisas rojas”)—, eta orobat laborantzaren erreformarako egitasmoen gelditzearekin. Izan ere, Lazaro Cardenasen agintaldi arte, 20 milioi hektarea lur banatu zirenean, ez zen erreforma benetan gauzatu (1934-40). Callesek sortu zuen Alderdi Nazional Iraultzailea, etorkizuneko PRI (*Partido Revolucionario Institucional*) ahaltsuaren sorburu zuzena, eta bera izan zen Mexikoko gizonik indartsuena Cardenasek aginpidea hartu zuen arte. Alderdi horren sorrerak eta eliztarren matxinadak amaitzeak bukarazi zuten Mexikoko historiaren aldi iraultzaile hau.



## **2. Emiliano Zapata**

Mexikoko iraultzako lider garrantzitsuenetako bat izan zen Emiliano Zapata (Morelos Estatua, 1879-1919), nekazari familian hezitakoa, bera ere nekazari mestizoa. “Lurra lantzen duenarentzako da” eta “Lurra eta askatasuna” leloak oinarrian, Zapatak ordura arte Mexikon egiten zen lurren banaketa gogorki salatzen zuen, eta erreforma eskatzen zuen arlo horretan, armak lagun zituelarik. Izan ere, esan bezala Mexikoko ekonomia eta lurren politikak lur-jabe handiak baino ez zituen aintzat hartzen. Politika horren kontrako matxinadetan ez zen bera bakarrik aritu buruzagi bezala, berak hegoaldeko mugimendua zuzendu bazuen ere, iparraldean Pancho Villak borrokatu baitzuen ideia berdinen alde. Hala ere, biek momentu jakinetan baino ez zuten bat egin iraultzan zehar, mugimendu independenteen buru ziren. Zapataren jardunari dagokionez, politikan interes handirik ez zuen aurkeztu bere plangintzan. Haren eskakizunak lurak nekazariari emateko eskatzera mugatzen ziren. Villak, aldiz, arazoa modu osoagoan, ikuspuntu politikoago batetik ikusten zuen.

Horrela, bada, Mexiko hegoaldean hasi zuen Zapatak bere jarduna, bertan sortu zuelarik *Ejército Libertador del Sur* delakoa, hain zuzen ere, haren aldarrikapenak gauzatzeko asmoz ziharduen gerrilla. Zapatarekin batera ibili zirenek hartu zuten lehendabizikoz, “zapatista” deitura.

Beraz, Emiliano Zapatak nekazari erreforma eskatzen zuen. 1911. urtean egin zuen Ayalako Plana, bere helburu erreformistak ofizial eginez. Zapatak lurak nekazariari itzuli nahi zizkien, indigenei beraienak ziren lurak itzuli eta Porfirio Díazen urteetan zehar sortutako latifundioak banatzea eskatzen zuen. Lurra lantzen zuenari ematea, alegia.

Mexikoko Iraultzak iraun zuen urteetan, lehendabizikoz 1917ko Konstituzioan islatu ziren lehen nekazari erreformaren zantzuak, baina garai hartan ez zen errealitatean islatzera ailegatu, boterea hartzen zuena zen presidentea zela.

Zapata 1919an erail zuten, 40 urte ere ez zituela, eta ofizialki iraultza 1920an bukatu bazen ere, matxinada isolatuek 1934. urtera arte iraun zuten. Orduan heldu zen boterera Lázaro Cárdenas, eta orduan instituzionalizatu zituen 1917ko Konstituzio hartan esaten zirenak.

Beraz, armez baliatuz lurak Mexikoko nekazari eta indigenei bueltatzea eskatzen zuen mugimenduko buru nabarmena izan zen Emiliano Zapata. Hain zuzen ere, nekazaritza arloan soilik zentratzeak Mexiko osoko benetako iraultza bateratu bat bideratu ezin izana leporatzen diote historialari zenbaitek, nahiz eta *etsaien* aurka egiteko iparraldeko sektorearekin ere (Pancho Villak zuzendutako gerrillarekin) bat egin zuen.



### 3. Zapatismo Berria

#### 3.1. EZLNren sorrera eta garapena

Ofizialki Mexikoko Iraultza 1920ko hamarkadan bukatu zen. Emiliano Zapata 1919an erail zuten. 80ko hamarkada arte aurrera egin beharra dago berriz ere zapatismoaz hitz egiteko. Zapatismo bezala ulertzen da, askorentzat neozapatismo bezala ulertu beharra dagoena. Mexikoko Iraultza bukatu ondoren Partido Revolucionario Institucional delakoak (PRI) hartu zuen Mexikoko agintaritzak. 1929tik agintaritzan mantendu da PRI urte luzez, 2000. urtera arte hain zuzen.

Baina EZLNren haziarekin topo egiteko, 60ko hamarkadara jo behar dugu, bertan aurkitzen baititugu Mexikoko Iraultzaren osteko lehen gerrillak. Mexiko osoan zehar sortuak, talde hauek ez zeuden ados PRIk egiten zuen politikarekin. Sistemaren kontra zeuden taldeak ziren, aldaketa sozialak eskatzen zituztenak, eta nagusiki, talde hauek salatzen zutenez PRIk bere alde ez zituen sektoreei egiten zieten errepresioaren kontra azaltzen ziren. Denak, Mexikoko Gobernuaren segurtasun-indarren eta organizazio paramilitarren mehatxuen menpe zeuden.

Gerrilla hauek 1965 eta 1975. urteen artean osatu ziren nagusiki. Hain zuzen ere, 1969. urteko abuztuaren 6an sortu ziren Monterreyn, Mexiko iparraldean, EZLNren hazia diren Askapen Nazionalerako Indarrak. Sortu eta hiru urtera, Askapen Nazionalerako Indarrek (FLN) beraien kuartel orokorra Mexikoko hiriburutik hurbil zegoen Nepantlanen bazuten ere, Mexiko hegoaldeko Chiapas erregioko Lacandona oihanean ere ezarri zuten beren indarra. Hala ere, esan bezala Mexikoko Gobernuak gerrilla hauen kontrako lana martxan zuen, eta 1974. urtean FLNen kuartel orokorra desegin eta Chiapasen zituzten ordezkariak hil zituzten.

Bederatzi urte pasatu ziren FLNak berriz ere egituratu eta Chiapasera itzuli ziren arte. Orduan, FLNen parte ziren German eta Elisa komandanteak Lacandona oihanean berrezarri ziren, eta izen berriarekin gainera: Askapen Nazionalerako Armada Zapatista (EZLN). Urtebete geroago, 1984an, Marcos komandanteordeak mugimenduarekin bat egin zuen Lacandona oihanean. Dagoeneko gorpuzten hazia zen EZLN, eta 80ko hamarkadan zehar joan zen indarra hartzen eta antolatzen.

1983ko azaroaren 17an, hasierako German eta Elisa komandanteek gain zenbait indigenak ere bat egin zuten EZLNrekin eta haren helburuekin. 90eko hamarkadaren hasiera arte, Chiapaseko altxamendura arte, EZLNk Lacandona oihanaren, eta oro har, Chiapaseko herrietako biztanleengan bilatu zuen beraien taldeak indarra hartzeko beste partaide. Gehiengo indigena zuen, nahiz eta mestizo eta zuriek ere osatzen zuten (gutxiengo argia), horien artean Marcos komandanteordea, gerora mugimenduko buru bihurtuko zena.

Zonako herritarrengan iraultzarako grina pizteko asmoz, Chiapasera heldu ziren zapatistek irakasle edota mediku gisa aurkezten zituzten beren buruak. Denbora pasatu ahala, herritarrei beraien intentzioak zeintzuk ziren azaltzen joan ziren, nortzuk ziren eta zeren kontra matxinatzeko asmoa zeukaten azalduz. Herritarrei, indigenei borrokatzeko prest zeuden galdetzen zieten. Horrela, pixkanaka herritar haiek hitzaldiak jasotzen hasi ziren oihanean, ezkutuan. Ordurako bat egiten hasiak ziren EZLNrekin, eta entrenamendu politikoarekin batera, entrenamendu militarra ere jasotzen hasi ziren, armetan entrenamendua alegia.



Prozesu hau guztia, noski, klandestinitate betean egin zen, indigenek zapatistekin zuten komunikazio modu guztiz ezkutuaren bitartez: batzuek zein besteek eramaten zituzten arropen koloreek edota mugimenduaren parte zirenek elkarri ematen zizkioten seinaleek zehazten zituzten batzarrak egiteko hitzorduak eta lekuak, gehienetan gauzez eta zuhaizpe zein kobazuloetan.

Chiapaseko herrietako emakumeak ere pisu nahikoa hartzen hasi ziren mugimenduan, beraiek baitziren oihanean ezkatututa zeudenei janaria ematen zietenak eta jantziak egiten zizkietenak, eta beraien mantentzearen ardura zeramatenak, hauek ere gauaren klandestinitatean. Baina horrez gain, emakumeek matxinatuen aldetik zainketa egiteko entrenamendua ere jaso zuten, eta armen erabilera ere nola egiten zen ikasi zuten. Ahaztu gabe, matxinatuen artean emakumeak ere bazeudela.

Gauzak horrela, gorpuztu zen EZLNren buruzagitza izango zena: Biltzar Klandestino Iraultzaile Indigena, 23 komandantek eta komandanteorde batek (Marcos) osatua.

Antolakuntza dagoeneko egina zegoen, baita entrenamendua ere, eta EZLNk lortu zuen Chiapaseko zenbait herri osok beraien mugimenduarekin bat egitea, eta behin bat egin zutelarik, herritarrak miliziano eta gerrillari bihurtu eta arma entrenamendua jasotzen hasi ziren, herri bakoitzean milizianoen bospasei pelotoi izatera iritsi arte. Milaka zapatista ziren ordurako mugimenduarekin bat egin zutenak.

Altxamendurako prest zeuden. Eta hala egin zuten 1994ko urtarrilaren 1ean.



### ***3.1.1. Zeren alde?***

Esan bezala, 1994ko urtarrilaren 1ean eman zen ezagutzera EZLN, hain zuzen ere, Chiapaseko altxamendua burutu zuen egunean. Altxatu eta berehala munduaren aurrean Marcos komandanteordeak beraiek nor ziren eta zeren alde eta zeren kontra altxatu ziren azaldu zuten.

Gehiengo indigenaz osatua dagoen taldea da EZLN, eta eskatzen duten horretan berebiziko pisua dute Mexikoko indioek, indigenek. EZLNk defendatzen du mexikar guztiak bezala indigenek ere lana, lurra, jana, etxea, osasuna, hezkuntza, independentzia, justizia, askatasuna, demokrazia, bakea, informazioa eta kultura, Mexikoko herritar guztiak bezala, izan eta jasotzeko duten eskubidea. Beraien esanetan, indioak 500 urtez zanpatuta bizi izan dira, zuriak zanpatua urte horietan guztietan zehar,

alde bakarreko gerra baten biktima dira indigenak. EZLNk dioenez, urtean 15.000 indigena hiltzen omen dira berez senda daitezkeen gaixotasunen erruz, Mexikoko Gobernuaren hauekiko utzikeria eta diskriminazioak eraginda. Horrela, bada, indioek ez duten eta merezi duten errekonozimendu eta eskubide-berdintasunaren aldeko borroka da EZLNren oinarria.

Horrekin batera, 1988tik boterean izan zen Carlos Salinas de Gortari presidentearen aurkako jarrera argia ere aurkeztu zuen EZLNk egun hartan. Diktadorea zela esanez agertu ziren, hauteskundeak irabaztea joko zikina eginez eta legez kanpoko praktikez lortu zuena, eta indigenen egoera lasen lagundu zuena. EZLNk neoliberalismoaren kontrako jarrera argia ere bazuen, eta horrela Salinas de Gortariren politikaren kritika gogorra egiten zuten (gerora aipatuko dugun TLC). Horrez gain, Salinas de Gortarik nekazari erreformari uko egin eta denentzako lurrik ez zegoela eta lurra banatzeari utzi zion 1992an. Beraz, oro har Mexikoko sistemari kontra eginez, baina batez ere indigenen eskubideetan zentratzen ditu EZLNk bere ideiak eta eskakizunak. Hiru hitzetan esanda, demokrazia, askatasuna eta justizia eskatzen ditu. Ideia hauek Lacandona oihaneko lehen adierazpenean eman zituzten ezagutzera, Chiapasen altxatu ziren egunean.

Horrekin, EZLNk azaltzen duenez, ez zuen boterea hartzeko asmorik, baizik eta herritarren kontzientzia suspertu eta beraiekin bat egitera deitu. Bokazio nazionala du EZLNk, eta horregatik Mexiko osoko indigenak eta beraien helburuekin bat egiten duen gizarte talde eta antolamendu oro beraiekin bat egitera deitzen zituzten. Ikusi den bezala, Mexiko osoan baino gehiago Chiapasen lortu zuten arrakasta EZLNkoek.

### 3.1.2.- Chiapas

Chiapas Mexikoko hego-ekialdean kokatua dagoen estatua da, Mexikoko Oaxaca, Veracruz eta Tabasco estatuekin muga egiten duena herrialdearen barnean. Hego-ekialdean, berriz, Guatemala du muga. Mexikoko lurralde oparoena da Chiapas errekurtsio aldetik, arrantza, nekazaritza eta abeltzaintzan aritzeko toki aproposa. Ezin ahaztu, Mexikoko petrolio ekoizpen nazionalaren % 21 Chiapaseko putzuetatik ateratzen dela.

Baina, EZLN sortu zen garaian, bertako biztanleak, gehienak maia jatorriko indigenak, herrialde guztiko pobreenak ziren. Indigenek betetzen dute Chiapaseko ia 4 milioi biztanleen zati garrantzitsu bat, tzotzilak, txolak, zokeak eta tojolabalak direlarik talde etniko jendetsuenak indigenen baitan.

Eta zergatik bizi dira hain egoera txarrean Chiapasen? 1917ko konstituzioak bermatzen zuen nekazari erreforma eman eman zen, eta hari esker lurren banatzea hasi zen, baina iparraldeko estatuetan gauzatu zen gehienbat. Chiapasera nekazari erreforma ez zen 70eko hamarkada arte heldu. Baina lurrak banatzeko momentua heldu zenean, indar gailenek indigenak eta beraien eskubide eta interesak erreprimitu zituzten. Besteak



beste, Chiapasetik zituen errekurtsio eta lurrak interesatzen zitzaizkien enpresa multinazional eta lur-jabeak indar paramilitarrez baliatu ziren indigenei beraien lurrak lapurtzeko, lur horien gainean zituzten berezko eskubideak urratuz. Horrela, Chiapaseko errekurtsio naturalek

eskaintzen zituzten aukera ekonomikoek enpresa handien inbertsioa ekarri zuten lurrotan, eta Mexikoko Gobernuak ez zien indigenei beraien lurrak mantentzeko zuten eskubidea bermatu. Chiapaseko indigenak lur horietako esklabo bilakatu ziren horrela, eskulan merke eta esplotatua.

Gauzak horrela, Chiapaseko indigenen bizi-kalitatearen ezaugarri desnutrizioa, analfabetismoa, osasun-zerbitzu falta (botikarik ez zuten, esate baterako, eta milaka biztanleko mediku bakarra zegoen), zurien aldetiko errepresioa eta heriotza-tasa altua ziren.

### 3.2. Altxamenduaren garapena

EZLN 1994ko urtarrilaren 1ean altxatu zen Chiapasen Mexikoko Gobernu Federalaren eta bere armada eta poliziaren kontra. Chiapas estatuko zazpi hiri hartu zituzten hamar mila inguru matxinatuk: San Cristobal de las Casas, Altamirano, Las Margaritas, Ocosingo, Oxchuc, Huixtan eta Chanal.

Altxamenduaren eguna ez zen nolanaahi aukeratutako egun bat izan. Egun horretan sartzen zen indarrean *Tratado de Libre Comercio de América del Norte* zelakoa. Itun horrek Kanada, AEB eta Mexikoren artean bloke komertzial bat eratzea suposatzen zuen, hauen hiruren artean merkataritza askea ahalbidetzen zuena, besteak beste, batak bestearen lurretan inbertitzeko askatasuna bermatzen zelarik. Merkatua liberalizatu zuen, lurrak ere merkatuaren menpe geratzen zirelarik. EZLNk hitzarmenak indigenen zanpatze eta heriotza osoa ekarriko zuela salatzen zuen, eta hori izan zen egun hartan altxatu izanaren arrazoia. Ez da ahaztu behar, 1992an Salinas de Gortariaren gobernuak Konstituzioko 27. artikulua aldatuz, nekazari erreforma deuseztatu eta lurrak banatzeari utzi berri ziola. Beraz, EZLNk Chiapaseko hiriak hartu zituen armak eskuan zituztela. Orduan plazaratu zuten Lacandona oihaneko lehen deklarazioa, munduari beraien eskakizun eta intentzioak zeintzuk ziren azaltzeko.

Hamabi egunez izan ziren enfrentamenduak EZLNren eta Gobernuaren indarren artean, urtarrilaren 12an Salinas de Gortarik su-etena deitu zuen arte. Orduan hasi ziren Gobernuaren eta EZLNren arteko lehen negoziazioak, otsaila eta martxoa bitartean. Hala ere, ekainean EZLNk ez zituen Gobernuak bakea lortzeko aurkeztutako baldintzak onartu, eta Lacandona oihaneko bigarren deklarazioa kaleratu zuen alderdi politiko independenteei trantsizioko gobernu bat eratzeko deia eginez eta gizarte zibilari konstituzio berri bat sortzeko Biltzar Demokratiko Nazional batean batu zitezten eskatuz. Biltzarra ospatu egin zen, abuztuan Lacandona oihanean, eta 6.000 bat lagunek hartu zuten parte, EZLNk deituta. 1994an Salinas de Gortarik Gobernu utzi zuen, eta Ernesto Zedillok hartu zuen postua, hau ere PRIkoa.

Altxamenduaren urteurrenean betetzen zen urtarrilaren 1ean kaleratu zuten zapatistek Lacandona oihaneko hirugarren adierazpena, berriz ere gizarte zibilari deialdia luzatuz: askapen nazionalerako mugimendu bat aldarrikatzen zuten trantsizio gobernu bat eratzeko. Hil horretan bertan, Marcos komandanteordeak Gobernuko ordezkariekin zenbait batzar izan zituen. Hala ere, otsailean Gobernuak zapatistek Lacandona oihanean zituzten posizioen aurka egin eta zenbait EZLNko kide atxilotu zituen. 30.000 desplazatu inguru eragin zituen Lacandona oihaneko herrietan, eta operazio horren kontrako gizarte-mugimendu ugari. Marcos komandanteordearen uestezko identitatea ere kaleratu zuen: Rafael Guillén Vicente omen zen aurpegi estaliaz eta pipa eskuan zapatisten izenean Mexikori hitz egiten zion gizona.

Giroa lastu bazen ere, apirilean EZLNk eta Gobernuak negoziazioei heldu zieten berriro, Chiapaseko San Andrés de Larrainzar herrian. Gobernuarekin hitz egin eta lau hilabetera, EZLNk herri-kontsulta egin zuen milioi bat herritarren artean, eta hauek EZLN indar politiko bihurtzearen alde agertu ziren. Urte bereko urrian, udal-hauteskundeak egin eta PRIk Chiapaseko 111 udaletatik 80 lortu zituen, boterean, beraz, Chiapasen ere nagusi zen.

EZLNren Lacandona oihaneko laugarren adierazpena 1996ko urtarrilean iritsi zen, eta hil batzuk lehenago egindako herri-kontsultak eraginda eremu politikora pasatzeko asmoa erakutsi zuen, FZLN (Askapen Nazionaleko Indar Zapatista) sortzeko asmoa erakutsiz. Otsailean heldu ziren EZLN altxatu zenetik Gobernuarekin akordio bat sinatzearen lehen zantzuak, berez, sinatu sinatu zuten akordioa. Otsailaren 16an sinatu zituzten biek San Andreseko akordioak izenaz ezagutzen direnak, izen bereko herrian. Bertan, Mexikoko Gobernuak eta EZLNk oinarrian eskubide eta kultura indigenen aitortza eta errespetua adostu zituzten, demokrazia eta askatasunaren aldarriaren babesean. Horrela, Gobernuak Chiapaseko lurren okupazioari amaiera emateko asmoz bertako 40 nekazari elkarteen artean 200.000 hektarea lur banatzeko konpromisoa hartu zuen. Kontua bide onetik zihola esan zitekeen, baina San Andreseko akordioek ez zuten fruiturik eman.

Izan ere, EZLNk ez zuen ikusi Gobernuaren aldetik San Andresen sinatutakoan arrastorik, ez behintzat sinatutako helburuak beteko zirelako uste argirik. Beraien esanetan, Gobernuak ez zuen ahal adina egin Chiapaseko nekazari eta indigenei beraien lurak itzultzeko eta beraien eskubideak bermatzeko. Horrela, Marcos komandanteordeak San Andreseko akordioak hautsi zituen, berriz ere akordiora bueltatzeko zenbait baldintza ezarriz: horien artean, ordura arte Gobernuak atxilotu zituen ustezko zapatistak askatzea, Gobernuaren indar militar zein polizialen jazarpena etetea eta beraien esanetan, Gobernuak demokraziaren eta justiziaren aldeko “benetako jarrera serio” bat hartzea. Baina elkarrizketak hautsiak zeuden eta ez zen negoziazio zantzurik 1999. urtera arte berriro sumatuko.

Bitartean, 1997ko urrian, azkenean gorpuztu zen EZLNren proiektu politikoa zen FZLN, talde berriaren bultzatzaile Marcos komandanteordea izan zelarik. Hala eta guztiz ere, FZLNeko agintaritzan ez zegoen EZLNko agintaririk, berez talde independente gisa ulertzen baitziren, nahiz eta elkarrekintzan lan egiten zuten.

Horrez gain, 1997an beste bi gertakari nabarmendu beharra dago: batetik, uztailean PRIk Diputatuen Ganberan izan zuen gehiengo galtzea (2000. urtean Mexikoko boterea galtzeko lehen zantzuak), eta abenduan Actealen (Chiapas) izan zen 45 indio tzotzilen hilketa indar paramilitarren esku. Biktimak mugimendu zapatistarekin bat egiten zuten.



1998an gauzek bere horretan jarraitu zuten. Uztailean Lacandona oihaneko bosgarren adierazpena irten zen, berriz ere gizarte zibilari indioen estermioaren kontrako eta bakearen aldeko mugimendu zapatistarekin bat egin zezaten eskatuz. 1999ko abuztuan berriz ere liskarrak sortu ziren Chiapasen. Gobernuak komunitate indigenen kontrako estrategia gogortu zuen, zenbait liskarretan balaz zaurituak eta guzti egon zirelarik.

Testuinguru nahasi honetan, negoziazioei berriz ere atea ireki nahi izan zizkien Gobernuak 1999ko otsailean elkarrizketa proposamen berria plazaratuta, baina azken indarkeria-ekintzak zirela-eta, EZLNk uko egin zion elkarrizketari, berau gauzatzeko bete behar zituen baldintzak gogoraraziz.



Ezkerretara Vicente Fox, Mexikoko presidente izendatu berria

2000. urteari dagokionez, uztailean 70 urteko agintaritzari amaiera emanez, PRIk Mexikoko Gobernu galdutako zuten, Partido de Acción Nacional (PAN), Vicente Fox buru, hartu zuelarik boterea. Chiapasen, *Alianza por Chiapas* hartu zuen boterea, alderdi eta talde batzuen koalizioa zena eta zenbait ezkerreko sektoreen poza ekarri zuena.

Horrez gain, urte amaieran Herri Indigenen Duintasunaren Aldeko Ibilaldia egingo zutela iragarri zuten zapatistek. EZLNkoek Chiapasen hasi eta 2001eko otsaila eta martxo bitartean Mexikoko hainbat estatu zeharkatu ondoren, amaiera Mexiko DFn egin zuten. Hemen ere, EZLNk Gobernuarekin negoziazioak berrezartzeko zituen baldintzak gogorarazi zituen: San Andreseko akordioetan esandakoa betetzea, Gobernuaren ekintza militarrik etetea eta preso zapatisten askatasuna. Hala ere, ibilaldi horrek izan zuen sonagatik sail berezi batean azalduko dugu bertan gertatutakoa.

### 3.3. Indigenen bake eta duintasunerako karabana

Otsailaren 24tik martxoaren 9ra, Marcosek eta EZLNko 23 komandantek 3.000 kilometro egin eta 12 estatu mexikar zeharkatu zituzten. Hain zuzen ere, Emiliano Zapatak bere egunean (1914an) egindako ibilbide bera errepikatu zuten. Helmuga Mexiko DF izan zen, non 20.000 lagun baino gehiago zeuden haien zain.



Mexikoko El Zocalo plazan bildutakoak zapatisten zain

Ibilaldi zapatista baketsu hau ‘Zapatour’ eta ‘Indigenen bake eta duintasunerako karabana’ izenekin egin zen ezagun. Ibilaldiko kideen eta, oro har, zapatisten eskaera Eskubide eta Kultura Indigenen gaineko Legea onartzea zen, 1996an sinatutako San Andreseko akordioen baitan zegoena. Propagandarako EZLNk erabilitako metodoei eutsiz, Interneten ere eduki zitekeen martxaren nondik norakoen berri, ‘2001 La Odisea zapatista’ izenburua zuen orrialde bat ere abian jarri baitzuten.

Mexiko DFra iritsitakoan egindako hitzaldian, Marcosek Mexikoko 56 etniak aipatzeaz gain, Chiapaseko bake eta justizia sozialaren truke EZLN desagertuko zela esan zuen. Eta Legea Kongresuan onartu arte, hirian egongo zirela ere ohartarazi zuen. Martxoaren 28an, zapatistek Diputatuen Ganberara sartzea lortu zuten. Esther komandateak, aurpegi-estalkia erantzi gabe eta loreak eskuetan zituela, hitza hartu zuen. Hurrengo egunean, Marcos eta bere kideak Chiapasera itzuli ziren, lorpenengatik pozik.

Bost urteko atzerapenaz, Senatuak Eskubide eta Kultura Indigenen gaineko Legearen bertsio bat onartu zuen. Testuak indigenen autodeterminazioa mugatzen zuen eta legea eraginkorra izan zedin jarraitu beharreko prozedura anbiguoak aurkezten zituen. Marcosek ‘isekatzat’ hartu zuen egindakoa eta honen ostean, denbora luzez egon zen hausnarketan.

EZLNk hitzik esan gabe egon zen oihanean, bere burua erresistentzian aitortu bazuen ere. Tarte honetan Gobernuak San Andreseko itunak ez betetzearren egin zituzten protestek edota 2004an 4.500 pertsonen indigenentzako ur edangarria eskatuz egin zuten ibilaldi baketsuak besterik ez zuten apurtu beraien isiltasuna, azken horretan indar militarrekin liskarrak egon zirelarik.

Horrenbestez, 2005era arte egin beharra dago salto. Ekainean EZLNk Alerta Gorria! deitu zuen. Horrek zera esan nahi zuen: EZLN barruan galdeketa bat egitera zihoazela eta, ondorioz, gizarte zibilaren arretoa eskatzen zuen. Alerta Gorria! Uztailean bukatu zen, baina bitartean, ekainean dagoeneko zapatistek atera zuten momentuz azkenengo Lacandona oihaneko adierazpena dena, seigarrena.

### 3.4. 2006ko hauteskundeak

2006. urtean hauteskundeak izan ziren Mexikon. Hauteskundeak sei urterik behin egiten dira herrialdean eta aurrekariari begiratzea garrantzitsua da; arestian esan bezala, Mexikoko Iraultzaren ostean, PRI alderdia 70 urtez egon zen boterean eta 2000n bere hegemonia galdu zuela gogorarazi beharra dago. Orduan, PAN alderdiko Vicente Fox hautagaia izan zen presidentetzara heldu zena.

2006an alderdi nagusien arteko lehia (PRI, PAN eta PRD) egon zen. Zapatistek hauteskundeetara ez aurkeztea erabaki zuten, ez baitute ez sisteman eta ez instituzioetan sinesten. San Andreseko akordio antzuen ostean, hauekiko fedea galdu zuten eta ez zioten zentzurik aurkitzen aurkezteari.

Hauteskundeen emaitza, Calderonen PAN alderdiaren garaipena izan zen. Haatik, bai zapatistek eta bai PRDko kideek ustelkeria salatu zuten. PRDko buru Lopez de Obradorek



bere burua irabazle izendatu eta hauteskundeak manipulatuak izan zirela adierazi zuen. Orduan, zapatistak gogor kritikatuak izan ziren ezkerreko alderdia irudikatuko lukeen PRDrekin batera hauteskundeetara ez aurkezteagatik. PAN alderdia oso hamarren gutxiengatik gailendu zitzaion PRD alderdiari, eta zapatistek hauekin bat egin izan balute garaipena eurena izan zitekeela uste baitzen.

### 3.5. 'La otra campaña'

Hauteskunde presidentzialen harira, 2006ko urtarrilaren leian Marcosek ('Zero delegatua' izena hartu zuenak) 'La otra campaña' izeneko tour-ari hasiera eman zion. Lacandona oihaneko seigarren adierazpenaren aldarrikapenek bat egiten zuten honekin. Proposamenaren bitartez, EZLNk antikapitalista eta ezkertiar herritar soilak, zibilak, eta horrez gain, erakundeak beraiengana batu zitezten eskatzen zuen.



Marcos motor gainean 'La Otra'n

Abuztuaren 5 eta 18 bitartean Marcos komandanteordeak ezkerreko zenbait gizarte-talde, GKE, talde kultural zein politikorekin batzarrak izan zituen horretarako. EZLNk *La Otra Campaña*-n talde horiek batzea lortuz gero, elkarlana eta taldeen arteko



ekintza horizontalaren aldeko apustua bermatzen zuen. Parte-hartze herritarra lortzea eta horrekin elkarlanean aritzea zen helburua. Horrekin fronte politiko sendoa eraiki nahi zuten, indigenek, baserritarrek, ikasleek zein herritar soilek bat eginez. Hona helduta, zazpi urte lehenago sortutako Askapen Nazionalako Indar Zapatista (FZLN) desagitea erabaki zuen Marcos komandanteordeak, dagoeneko EZLNk hartu zuen norabidearekin beharrezkoa ez zela eta.

Hala, hauteskundeetara aurkeztu ez arren, Mexiko osoko ezkerria sendotzen aritu zen 'beste kanpaina bat' jarri zuten abian. Ibilaldia bertan behera geratu zen une batez, ordea, zapatismoak jarraitzaile dezente dituen Atenkon (Mexiko DF), poliziaren eta herritarren arteko liskarrak sortu zirenean. Zapatistek hiria uztetari uko egin zioten enfrontamenduen ostean preso hartutakoak askatu arte.

Ezbehar hura atzean utzita, 'La otra'ko ekimenek gaur egunera arte iraun dute. Zapatistek Mexiko osoan ezkerreko oinarri sozial sendoa eratzeko asmoarekin jarraitzen dute, eta hortaz, herrialdeko elkarte, erakunde eta abarrekin bilerak egiten dituzte.

Azken urteotan, nabarmentzekoak izan dira 2007ko abuztuan Chiapasen egin zen Topagune Zapatista (uztailaren 21etik 29ra) eta urte bereko abenduan egin ziren emakumeen topaketak: 'Ramona Komandantea, emakume zapatista eta munduko emakumeentzako lehen jardunaldiak'. (abenduarien 30, 31 eta urtarrilaren 1 eta 2an).

2008ko maiatzaren 9, 10 eta 11n Atenasen Mexikoko Herri Zapatisten eta *La Otra Campaña*ren Defentsaren eta Borrokaren Aldeko Topagunea egin berri da.

#### 4. Marcos komandanteordearen irudia

Marcos komandanteordea 1994ko urtarrilean eman zen ezagutzera, Chiapasen, EZLNren lehen agerraldi publikoan. ‘Pasamontañas’ edo aurpegi-estalkia jantzita eta pipa eskuan duela azaldu ohi den hizlari trebea iraultza zapatistaren ikur bilakatu zen orduan. Garaiko Carlos Salinas de Gortariren gobernuan (1988-1994) hautsak harrotu zituen eta bere irudia mundu guztian ezaguna egin zen.

Marcosen irudi enigmatikoak hamaika galdera eragin du egun horretatik gaur arte. Bere identitatea ezezaguna da, ‘Marcos’ ez baita liderraren benetako izena. EZLNko komandanteek hildakoen izenak hartu ohi dituzte, eta Marcosen kasuan, berea, zendutako ‘Marcos komandantea’rena da (egiazko izenez Antonio). Mexikoko Gobernuak, bere aldetik, Rafael Sebastián Guillén Vicente izatea egotzi zion komandanteordeari, bere lehen agerralditik urtebetera. Rafael Guillén lizentziatua da Soziologian eta Filosofian, azken irakasgai hori irakasten aritu zen Mexiko hiriko unibertsitatean eta gaur egun, desagertuta dago, inork ez baitaki non dagoen.



Haatik, espekulazioetatik harago, EZLNren komunikatu ospetsuenetako batean, Marcosek honela definitzen du bere burua:

*Marcos es gay en San Francisco, negro en Sudáfrica, asiático en Europa, chicano en San Isidro, anarquista en España, palestino en Israel, indígena en las calles de San Cristóbal, judío en Alemania, feminista en los partidos políticos, pacifista en Bosnia, mapuche en Los Andes, artista sin galería ni portafolios, ama de casa un sábado por la noche en cualquier barrio de cualquier ciudad de cualquier México, reportero de nota de relleno en interiores, mujer sola en el Metro a las 10 p.m., campesino sin tierra, editor marginal, obrero desempleado, escritor sin libro ni lectores, y es, seguro, zapatista en el sureste mexicano.*

Hasieratik, bere jarrera eta hizkera zirela-eta, argi geratu zen Marcos ez zela indigena, baizik eta hezkuntza maila handiko ‘zuri’ bat. Abiapuntu honek ezinbestean galdera bat eragin zuen: “Nolatan erabakitzen du ‘zuri’ batek berea ez den gerra batean (indioenean) hain irmoki barneratzea?”. Arrazoiak arrazoi, hau ez zen oztopoa izan (baizik eta alderantzizkoa) Mexikoko kulturako pertsonaia ospetsuak, Erdialdeko Amerikako beste lekuetakoak, eta europarrak (batez ere Mendebaldekoak) erakartzeko.

Marcosek neoliberalismo eta globalizazioaren aurkako mugimenduak pertsonifikatzen ditu. Eta hortaz, leku guztietako intelektual ezkertiarrek, globalizazio eta kapitalismoaren aurka dauden aktibistek, eta abarrek haren aldarrikapenekin bat egin zuten. Pertsonaia ospetsuen artean, besteen artean, Rigoberta Menchú (Bakearen Nobel sariaren irabazle guatemalarra), José Saramagok (Literaturaren Nobel sariaren irabazle portugesa), Noam Chomsky (pentsalari estatubatuarra) eta Manuel Vázquez Montalbánek (idazle espainiarra) babesa eskaini zioten.



Egun, hainbat jarraitzaile ditu, baina jakina, baditu beste hainbeste ‘etsai’ ere. Bai Marcosen alde daudenak eta bai aurka daudenak bat datoz, ordea, komandanteordea komunikatzaile ezin hobea dela esatean. EZLNk (Askapen Nazionalerako Armada Zapatista) hedabideak erabili ditu komunikaziorako tresna gisa eta hitza izan da erabili duen arma bakarra. Propaganda eta teknologia berriez baliatu dira, eta hala, komunikatuak, prentsaurrekoak, elkarrizketak, etab. eginez, beste edozein gerrillak lortu ez duena erdietsi dute, hots, entzunak izatea.

Zapatistek beren aurpegiak estaltzen dituzte ‘pasamontañas’ edo zapien bidez. Paradoxaz, estrategia horrekin hasi zirenetik, inoiz baino gehiago erakarri zuten arreta mediatikoa eta ondorioz, inoiz baino begiratuagoak dira.



Marcosen hitzek esandakoa berresten dute:

*“El gobierno no miraba a los indígenas cuando se mostraban, y ahora que se ocultan sí los ve”*

#### 4.1. Marcos komandanteordearen eta Che-ren arteko alderaketa

Marcos komandanteordea Ernesto Che Guevararen jarraitzaile sutsua da eta bere ondorengotzat jo izan du bere burua. Che hirurogeiko eta hirurogeita hamarrekoko hamarkadetako heroi iraultzailea izan zen. Egun, kapitalismoa ia leku orotara iritsi denean Marcosek bere aitzindariaren borrokarekin jarraitzea hautatu du. “Mundua aldatu” nahi du eta horretarako Mexikoko Gobernuaren eta neoliberalismoaren aurkako gerrak abian jarri ditu.

1967ko urrian armada boliviarrak Che hil zuen, mito baten mailara goratuz. Marcosen ospea, ordea, ez dator amaiera tragiko batetik, baizik eta hedabideetan duen nonahikotasunetik. Bi iraultzaileak guztiz desberdinak dira, alabaina. Chek argi uzten zuen bere diskurtsoan bizia iraultzarengatik emango zuela. Marcosen diskurtsoan, berriz, heriotzari era literario eta metaforikoan egiten zaio aipamen, eta batez ere, indigenen egoerarekin lotzen du, hauek “heriotza motel batera kondenatuta” daudela baitio. Korrante kritikoek heroi ‘tragiko’ eta ‘ludikoa’rekin parekatu izan dituzte, hurrenez hurren.

Ildo horretan, Cheren joan-etorri internazionalisten berri edukitzeko, hura hil eta gero, hogeita hamar urte itxaron behar izan ziren bitartean, Marcos guztiz aurkakoa da. Che gizon diskretua zen, kameretatik urruntzen zen, eta klandestinitatean egiten zuen lan. Marcosen metodoak, berriz, guztiz ezberdinak dira. Oihartzun mediatikoa bilatu du beti, bere hitzetan, hau baita ‘indioen kausa aurrera eramateko erarik eraginkorrena’. Indigenen bozeramailetzat aurkeztu du bere burua, eta metodo honek aurrera egin dezan, bere identitatea ezkutatzeaz arduratu da.



Laburbilduz, alderaketak neurri batean ekidinezinak badira ere, bai Chek eta bai Marcosek beren idealen alde borroka egiteagatik eta bi mito iraultzaile izateagatik, konparaketak ez du bestelako oinarri sendorik. Hala, iraultza kubatarren kasuan, iraultza abian zela, hedabideak kubatarrengana iristeko eretako bat izan ziren. EZLNren kasuan, hedabideak ezinbestekoak dira; izan ere, jendearengana iristeko bitartekoak izateaz gain, erabiltzen duten arma bakarra baitira.

#### 4.2. Ikuspegi kritikoa

Bertrand de la Grange eta Maite Rico, *Le Monde* eta *El Pais*-eko kazetariak, hurrenez hurren, *Marcos: 'La Genial impostura'* liburua argitaratu zuten 1997an. Marcosen fenomeno soziala azaltzeko xedez idatzi ei zuten liburuak Marcosen irudiaren ikuspegi kritikoa azaltzen du. Besteak beste, Marcosek hizkuntza indigenarik hitz egiten ez duenez, Estatuaren eta indigenen bitartekaria izateko desegokia dela deritzote. Indigenak ospea lortzeko erabili dituela gehitzen dute, baita, egun, bere irudiaren gatibu bizi dela. Haien iritziz, ezin du Mexikoko Gobernuarekin duen gerra irabazi baina, aldi berean, ezin du horretatik at bizi, bere irudiaren menpe baitago (euren hitzetan, 'Cheren antzera').

De la Grangek, beste elkarrizketa batean laburbiltzen zuenez, zapatisten eremua iraultza hasi aurretik zena baino txiroagoa da orain. Gobernuak komunitate indigenen aurkako estrategia bortitzak areagotzean, 30.000 lagunek beren etxeak utzi behar izan zituzten eta orain, errefuxiatu bizi dira. Gaur egun, indigenak mendekoagoak dira, kanpoko laguntza beharrezkoa baitute bizirauteko. Azaltzen duenez, Chiapaseko altxamendutik hona egon den garapena ezkorra da. Zapatistek hainbat ekimen zirela bide (adibidez Zapatour-a) hedabideetan arrakasta izan zuten arren eta Kongresuan sartzea lortu bazuten ere, ez zuten lortu beren bizi-baldintzek hobera egitea. Halaber, zapatistek eratutako 'gizartea' Kubakoa bezain militarizatua dagoela uste du.

Ildo horretan, Juan Pardinak analista politikoak ere (CIDAC garapenerako ikerkuntza zentroko kidea) Marcos "ezker marjinatu baten lider garratza" bailitzan irudikatzen du. "1994an inguratzen zuen kutsu heroikoa" mantentzen jakin ez duela dio eta nahiz eta gaur egun ere, jarraitzaileak dituen, ezin direla parekatu, inolaz ere, hasieran zuen jarraitzaile kopuruarekin. "Mitoa krisian" dago Pardinaren ustez eta okerragoa dena; "Marcosek ez du egun herrialdearen ikuspegi bideragarri bat, ezta indigenak Mexiko garatzen barneratzeko modurik ere".

### 5. Ramona komandantea (1959-2006): emakume, indigena eta zapatista

Ramona komandantea (María Díaz da bere jatorrizko izena), 1959an San Andres komunitatean jaioa, Tzotzil indigena, EZLNko ordezkari eta gidari garrantzitsua izan zen urte luzez. Batez ere mugimenduak bizitza publikoari ekin zionean izan ziren ugariak haren agerpenak. Armada Zapatistaren fundatzaileetako bat izaki, gerora ere mugimenduaren garapenean giltzarri izan diren hainbat eta hainbat unetan tartean izan da Ramona. Hala ere, azken urteetan, giltzurruneko minbiziak baldintzatu eta mugatu zuen bere jarduna. *“México perdió a una de esas luchadoras que hacen falta y a nosotros nos arrancaron un pedazo de corazón”* esan zuen Marcos komandanteordeak 2006ko urtarrilaren 6an, Ramona zendu zela jakinarazi zuenean. Tonalan (Chiapas) antolatutako hitzaldian harrapatu zuen albisteak Marcos. Gertatutakoa ezagutu bezain laster jakinarazi zuen urtarrilaren leian abiatu berri zuten bira politikoa (*La otra campaña*) bertan behera geratuko zela hiru egunez.



Ramona komandantea agerpen publiko batean

Izan ere, Ramona hil zenean, bere *armarik onena* galdu zuen EZLNk. Halaxe uste zuten askok. 1,40 metroko altuerako jostunak, bere xamurtasun eta xumetasunarekin mundu mailako gizartearen enpatia lortu baitzuen mugimendu zapatistarentzat. Nekazari familia xume baten baitan jaio zen eta, beharraren beharrez, gazterik atera zen bere komunitatetik, bertan ez zegoelako bizirauterik. Leku eta giro berriak ezagutu zituen, besteak beste San Cristobal de las Casasen aritu baitzen etxeko garbitzaile lanetan. Orduantxe jabetu zen hirietako emakumeen eta herrixketakoen arteko desberdintasunez, orduantxe jabetu zen indigena eta nekazariak bizi zuten egoera penagarriaz; eta kontzientzia hartu zuen orduan. Ordura arte besterik gabe irentsi egin zuen egoera hura gaitzesten ikasi zuen orduan. EZLNren proiektuaren berri ere izan zuen eta bertan emakumeak ere beharrezkoak zirela konbentzitu ekin zion bere ibilbideari mugimenduaren baitan. Ibilbide oparoa.

Artisautza lanak salduz eta asto nahiz oiloak haziz biziraun zuen, ez zen inoiz eskoletara joan, ez zuen apenas irakurtzen eta idazten ikasi eta elebakarra zen. Gaztelaniaz ez hitz egitea, ordea, ez zen oztopoa izan berarentzat. Bere hitzaldi eta mezuek oihartzuna izan baitzuten nazioartean.

### 5.1. Presentzia handiko emakumea EZLNn

Arestian esan bezala, Ramona komandantea EZLNren eta beronen aldarrikapenen garapenean funtsezkoak izan diren hainbat unetan izan da

mugimenduaren ordezkari nagusia. 80ko hamarkadan zehar, mugimendua oraindik publikoa ez zenean, Ramona jada ezaguna zen emakumeen artean euren eskubideen alde Chiapasen aurrera eramandako borroka sozial sutsua dela eta. Hezkuntzarako eta osasunerako eskubidea aldarrikatzen zuten eta balora zedila emakumeen lana. Gerora, 1993an, Emakumeen Lege Iraultzailea (*Ley Revolucionaria de Mujeres*) idatzi zuen Ana María komandantearekin batera. Orduetik, lege horrek jasotzen dituen oinarriak aldarrikapen zapatistaren funtsetako bat izan dira.



Bestalde, 1994ko altxamendua prestatu zuen Komite Klandestino Iraultzaile Indigenan (*Comité Clandestino Revolucionario Indígena*) lan handia egin zuen. Horrela, estrategia ardura izan zuen eta berak zuzendu zuen 1994ko urtarrilaren 1eko altxamendua, San Cristobal de las Casasen hartzea. Arrakasta biribila izan zen zapatistentzat, ez baitzen hildakorik izan.

Urte bereko otsailean, oraindik ere konbateek zirauten artean, EZLNko Komandantzia Jeneraltzak elkarrizketa publikoa eskaini zuen eta, orduan ere, Ramona agertu zen mendietatik jaisten, behe-laino artean, armada zapatistaren ordezkari modura mundu osoko begien aurrean.

Altxamenduaren ondoren, lehenengo hilabeteetan, Gobernu Federalaren eta erreboltagarrien arteko lehenengo negoziazio saiakeretan, Ramona izan zen zapatistek proposaturiko negoziatzaile nagusia. Eta gauza berbera gertatu da beste negoziazio saiakera askotan ere (San Andreseko akordioa barne).

Baina, zalantzarik gabe, 1996an Mexiko DFko zokaloan eginiko agerpena izan zen guztietan esanguratsuenak. Urte hartan bertan izan zen lehenengo Kongresu Indigena Nazionala Mexiko DFko Osasun Zentro Nazionalan, baina Gobernu Federalak



debekatua zuen zapatisten parte-hartzea. Debekuak debeku, urriaren 10ean, Ramona La Realidad komunitatetik abiatu zen hiribururantz. Marcos komandanteordeak hala deskribatu zuen: *“La comandante Ramona asombrará con su estatura y brillo a los medios internacionales de comunicación... Ramona ríe cuando no sabe que se está muriendo. Cuando lo sabe, sigue riendo. Antes no existía para nadie, ahora existe, es mujer, es indígena y es rebelde. Ahora vive Ramona, una mujer de esa raza que tiene que morir para vivir...”*

Eta hala izan zen. Izugarritzko polizia pila, kamerak, kazetariak, mikrofonoak... zituen zain Ramonak. 1,40 metroko emakumeak, elebakarra, ia-ia analfabetoa eta larriki gaixorik, Mexikoko hiriburuko zokaloa bete eta milaka indigena, langile, nekazari, ikasle eta, batez ere, nekazari-inguruetako emakumeren aurrean zabaldu zuen bere mezua: *“Esperamos que todos ustedes caminen junto a nosotros. Por eso queremos unir nuestra pequeña voz de zapatistas a la voz grande de todos los que luchan por un México nuevo. Llegamos hasta aquí a gritar, junto con todos, que nunca más un México sin nosotros. Eso queremos, un México donde todos tengamos un lugar digno”*. Hortaz, muga militarra gurutzatuta gatazka ingurutik atera eta bere hitza Mexiko DFra eraman zuen lehenengo zapatista izan zen.

Bidaia hori bera profitatu eta giltzurrun transplantea egin zioten orduan hiriburuan. Denbora luzez bildutako diruarekin, bere anaiaren giltzurruna ipini zioten eta hala lortu zuen bere bizitza beste hamar urtez luzatzea. Hala ere, aurrerantzean, mugimenduaren baitan lanean jarraitu zuen arren, bere agerpen publikoak nabarmen mugatu ziren, harik eta 2006ko urtarrilaren 6an hil zen arte.



La Realidad komunitateko emakume zapatistak

## 5.2.- Emakumeen eskubideen defendatzailea

Hasiera-hasieratik emakumeen eskubideak hartu zituen Ramonak banderatzat.

1994ko altxamendua baino lehen, Chiapaseko indigenak esklabotza egoeran bizi ziren lur-jabeen eskuetan. Umiliatuak eta zanpatuak, animalien gisara bizirautea besterik ez zuten. Hala diote zapatistek jasotako hamaika testigantzek. Ez zuten inolako heziketarik jasotzeko eskubiderik, zama garraiatzeko erabiltzen zituzten eta, ugazabei aurre eginez gero, izugarriko jipoiak jasotzen zituzten. Emakumeena are egoera gogorragoa zen jauntxoek behin eta berriz bortxatzen zituztelako zigorgabetasun osoz.

Baina, andrazkoentzat, arrotzak ez ziren mehatxu bakarra, kasu askotan etxe barruan ere izaten zutelako sufrimendua. Ezkontza eta haurdunaldi behartuak, hezkuntzarako debekua, etxetik irteteko baimenik eza... oso maiz neskatilen aitak edota nebak izaten ziren etsairik maltzurrenak.



1994ko altxamendu armatuarekin lur-jabeak botatzea lortu zuten eta, haiekin, urtetako oinazea. Baina beste arazoa,

etxekoa, konpontzea falta zen. Horrela, 1993an Ramona eta Ana Maria komandanteek hainbat komunitatetan jasotako testigantza, behar eta aldarrikapenetan oinarrituta, Emakumeen Lege Iraultzailea (*Ley Revolucionaria de Mujeres*) idatzi zuten 1994an eta urte bereko martxoan onartu zuten zapatistek. Hortaz, hasiera-hasieratik, emakumeen eskubideen defentsa oinarri eta printzipiotzat izan du mugimendu zapatistak.

### 5.2.1. Emakumeen Lege Iraultzailea (*Ley Revolucionaria de Mujeres*)

Lege honetan EZLNk emakumeak borroka iraultzailera batzeko beharra adierazten du, edozein delarik haien arraza, sinesmena, kolorea edota ideologia politikoa. Herri zanpatuaren aldarrikapenak bere egitea da baldintza bakarra, eta iraultzaren lege nahiz arauak betetzeko eta betearazteko konpromisoa hartzea.



Hamar printzipiotan oinarritzen da legea:

- 1.- Emakumeek, edozein delarik euren arraza, sinesmena edota ideologia politikoa, borroka iraultzailean parte hartzeko eskubidea dute euren borondateak eta gaitasunak determinatzen duen maila berean.
- 2.- Emakumeek lan egiteko eta soldata duina jasotzeko eskubidea dute.
- 3.- Emakumeek eduki eta zaindu dezaketen ume kopurua aukeratzeko eskubidea dute.
- 4.- Emakumeek komunitateetako auzietan parte hartzeko eskubidea dute eta ardurak hartzekoa libre eta demokratikoki hautatuak izanez gero.
- 5.- Emakumeek eta euren haurrek oinarritzko osasun eta elikadurarako eskubidea dute.
- 6.- Emakumeek hezkuntzarako eskubidea dute.
- 7.- Emakumeek euren bikotea aukeratzeko eskubidea dute eta indarrez ez ezkontzekoa.
- 8.- Inongo senitartekok edo arrotzek ezingo du emakume bat kolpatu. Bortxaketa delituak edo ahaleginak zorrotz zigortuko dira.
- 9.- Emakumeek zuzendaritza karguak hartzeko eskubidea dute erakundearen baitan eta gradu militarrik izatekoa indar iraultzaile armatuetan.
- 10.- Emakumeek lege eta arau iraultzaileek finkatzen dituzten eskubide eta obligazio guzti-guztiak izango dituzte.

Eskubide hauen jabe direlako kontzientzia emakume indigenen artean errotzea izan zen Ramonaren lan nagusietakoa; berak zioen bezala, andreak “itzartzea”.

### 5.3. Emakume zapatistak, gaur

Egun, gizonek bezainbesteko parte-hartzea dute emakumeek komunitate indigena zapatistetan. Oraindik ere badira emazteak etxean, atera gabe, gorde nahi dituztenak baina, oro har, gainditu dute gatazka hori eta emakumeen parte-hartze aktiboa oinarritzko printzipioa da komunitate zapatistetan.

Mugimendu zapatista ez da EZLNra mugatzen, zapatista guztiek ez baitute zertan erakunde armatuan parte hartu beharrik. Aitzitik, komunitate berriak “itzartzea”, kapitalismoaren eta neoliberalismoaren aurkako borrokaren beharraz ohartaraztea, kideei irakurtzen eta idazten irakastea, mundu mailako beste mugimendu batzuen berri ematea, munduari mugimendu zapatistaren berri ematea... hori guztia ere bada zapatista izatea. Horiexek izaten dira, kasu askotan, emakumeen zereginak. Munduko beste emakume erreboltariekin ere antolatzen dituzte kongresuak (azkena 2007ko abenduko mundu mailako jardunaldiak: ‘Ramona Komandantea, emakume zapatista eta munduko emakumeentzako lehen jardunaldiak’).



Hortaz, nolabait diplomatikoagoa den zereginei heldu ohi diete emakume gehientsuenek eta, aldiz, gutxiago dira armak hartzen dituztenak. Izan ere, EZLNn sartu eta oihanera alde egiten duten emakumeek, printzipioz, ez dute familia bat osatu eta seme-alabarik izateko aukerarik; euren jardunak haurrak arriskuan jar ditzakeela eta. Hori da printzipioa, nahiz eta salbuespenak izan.



Bestelakoan, komunitateetan, herrixketan geratzen diren emakumeek egiteko garrantzitsuak izaten dituzte. Hala izan zen hasiera-hasieratik gainera. Komite Klandestino Indigenaren garaian (mugimendua oraindik publikoa ez zenean) emakumeak arduratu ziren gerrillariak elikatzeaz eta ganorazko uniformeak jostez. Orain ere badira horretaz arduratzen direnak baina, arestian azaldu moduan, urteekin euren lanak salto kualitatibo handia eman du.

## 6. Mexikoko Gobernu Federalaren jarrera

Aurreko epigrafe batean azaldu moduan, 2006. urteaz geroztik PAN alderdiko (Partido de Acción Nacional) Felipe Calderón Hinojosa da Mexikoko Estatu Batuetako presidente. Dena dela, eraldaketa legealdi bat lehenago jazo zen, hain justu 2000. urteko hauteskondeekin batera. Izan ere, orduantxe igo zen Vicente Fox (PAN alderdikoa) presidentetzara PRI alderdiak (Partido Revolucionario Institucional) mende hasieratik zuen agintearen monopolioa agortuz.



Felipe Calderón Hinojosa

Dena dela, 2000. urtean eraldaketa politiko historikoa jazo zen arren, ezin esan dezakegu Mexikoko Gobernu Federalak, edozein zelarik bere kolorea, mugimendu zapatistarekiko zuen jarrera aldatu zuenik.

Historikoki, mugimendu indigena zapatista bizi izan den artean, Gobernuak ez ikusiarena egitea hartu du taktikatzat. Indioen aldarrikapenak eta euren borroka tokian tokiko arazotzat jo dituzte, Chiapaseko mugetatik harago hedatzen ez dena. Ez dute

EZLNren izaera edo bokazio nazionala onartzen eta, besterik gabe, gatazka gutxietsi eta aintzat hartu gabe egiten dute aurrera.

Zentzu batean, egia da Gobernuak hala pentsatzeko ebidentziak badituela. Izan ere, hurrengo epigrafe batean azalduko dugunez, EZLNk, orain artean behintzat, ez du benetako gaitasunik izan Chiapasetik kanpo ere hedatzeko. Egia da badirela hainbat foku eta komunitate Mexiko osoan zehar barreiatuak mugimenduarekin bat egiten dutenak baina ez dira benetan efizienteak, ez dute kontuan hartzeko moduko ganorazko eraginik izan eta, hortaz, baliteke gerrillaren eta mugimenduaren beraren izaera nazionala zapuztua izatea.

Baina, bestalde, baliteke tokian tokiko arazo isolatuz jotzearena eta horregatik ez ikusia egitearena aitzakia hutsa izatea. Baliteke Gobernu mugimendu zapatistaren indartzeak ekar litzakeen ondorioen beldur izatea. Horregatik, suari egur gehiago bota beharrean, zapatistek garrantzia aitortu eta hala haien presentzia nazioartean nabarmendu beharrean, nahiago izan dute, nolabait, mugimendua bera ukatu eta, bide batez, estali.



Izan ere, Gobernu Federalak (edozein delarik bere kolorea) hasieratik pentsatu izan du mugimendu zapatistak proposatzen duen iraultza (edo behintzat eraldaketa) lurrikara modukoa izan zitekeela Mexikoko Estatu Batuentzat; orain arteko egitura politikoa desegonkortu eta, finean, estatua bera (federazioa) desegino lukeen lurrikara.

Gogora dezagun mugimendua bizi den artean Mexikoko Gobernuak akordioekiko erakutsi duen jarrera pasiboen ondorioz, indigenen eskubideak onartzeko bidean eginiko esfortzu eskasaren ondorioz eta, batez ere, San Andresen hitzartutakoa bete ez izanaren ondorioz, zapatistek konfiantza galdu dutela zeharo eta, jada, ez dutela instituzio ofizialetan sinesten.

Haiek *Juntas de Buen Gobierno* direlakoan bidez kudeatzen dituzte komunitateetako auziak. Denen berdintasuna bermatzen duen sistema asanbleario horizontala da eta, hain justu, sistema hori bera da zapatistek Mexiko osorako proposatzen dutena. Uste baitute soilik hala bermatuko dutela gutxiengoaren ahotsak ere entzutea (indigenenak, emakumeenak, nekazarienak, neoliberalismoaren aurkakoak, ikasleenak...) eta guztientzako duina izango den Mexiko justu bat eraikitzea.



Eraldaketa proposamen hori, ordea, goitik behera arriskutsua da Gobernuaren begietan. Pentsatzen dute halakorik martxan jarri gero, Mexikoko errealitate soziala osatzen duten talde kultural eta etnikoek nork bere aldetik joko lukeela eta nork bere aldarrikapenak egingo lituzkeela. Adibide bat jartzearen, maien hizkuntza ofiziala izan dadin eskatuko lukete batzuek, tzotzila izan dadila beste batzuek, tzeltala beste batzuek...

Izan ere, Gobernuak jakin badaki Mexiko gorpuzten duten muga politikoak



benetan ahulak direla eta halako egoera batek are gehiago ahul zitzakeela.

Ezin ahantz dezakegu Mexiko eta, oro har, Erdialdeko Amerika eta Hego Amerika osoko herrialdeak espainiar kolonialismoaren ondorio direla eta beren mugak kolonialistek arbitrarioki eta artifizialki hobetsirikoak. Kanpotik ezarririko muga politiko hauek ez datoz inondik inora bat bertako errealitate soziokulturalarekin. Hala, estatu beraren baitan hamaika etnia eta kultura-talde nahasten dira eta, beste zenbait kasutan, gizarte-talde bera bi edo hiru estatutan banaturik geratu da. Horrexegatik, plurala den hein berean ahula ere bada Mexiko. Eta zapatistek proposatzen duten eraldaketak desegin lezake. Horixe Gobernuaren aburua.

Hortaz, eta laburbilduz, Mexikoko Gobernu Federalak, ofizialki bederen, tokian tokiko arazo isolatuaren tratamendua ematen dio mugimendu zapatistaren auziari. Hala ere, pentsa genezake ustez eta itxuraz dirudiena baino garrantzi handiagoa aitortzen diola. Izan ere, azaldu bezala, Mexikoko Estatu Batuen desegitearen mehatxua gorpuzten duela ere uste dute. Dena dela, argitu beharra daukagu hori ez dela inondik inora zapatisten helburua ez baitute izaera separatistarik eta askotan egin baitituzte agerpen publikoak Mexikoko bandera alboan dutelarik. Aitzitik, Mexikoren desegitea zapatisten proposamen iraultzaile edo eraldatzaileak ekar lezakeen zeharkako ondorioa litzateke.

### 7.- Mugimendu zapatistaren ezintasunak

Orain arteko orrialdeetan mugimendu zapatistaren izaeraz, bere aldarrikapenez eta hedabideez egin duen erabilera inteligentiaz aritu gara. Egia da, bai, EZLNk apenas duela antzik Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan sortu diren beste hainbat gerrillarekin.



Gerrillatzat dute euren burua, gerrilla entrenamenduak egiten dituzte Lacandona oihanean eta armak eramaten dituzte gainean euren agerpen guztietan. Aitzitik, odola isuri ez duen gerrilla bakanetakoa da. Izan ere, komunikabideak dira zapatisten armarik onena. Hitzak, diskurtsoak dira euren balak eta Internet bidez edota 2001ean abiatutako *Zapatour* moduko ekimen mediatikoen bidez jaurtitzen dituzte. Eta hala lortu dute beste gerrilla askok erdietsi ez dutena, munduak euren berri izatea, alegia.

Nazioarteak ezagutzen ditu, beraz. Ez da ez lorpen makala. 90eko hamarkadan, Lehen Mundua deritzoguna neoliberalismoarekin itsuturik zegoenean, zapatistak izan ziren kapitalismoaren eta globalizazioaren ondorioak euren azaletan pairatu eta hori salatu zuten lehenengoak.

Baina arrakasten parean ezintasunak ere izan ohi dira eta, mugimendu zapatistaren kasuan, Chiapasetik harago hedatzeko gaitasunik eza da nabariena.

Lehenago ere esan bezala, egia da Mexikoko beste hainbat estatutan ere badirela hainbat komunitate mugimendua babestu eta berarekin bat egiten dutenak. Baina foku barreiatu hauek ez dira eraginkorrak, ez dute benetako eta ganorazko eraginik izan. Hortaz, Gobernuari neurri batean arrazoia aitortuz, egia da, orain artean behintzat, zapatistek ez dutela lortu euren mezua Chiapasetik kanpo benetan errotzea.

Hainbat eta hainbat faktore daude tartean. Guk zapatismoak agertzen duen muga edo ezintasun hori esplikatu dezaketen arrazoi garrantzitsuenak identifikatu ditugu.



Batetik, oso kontutan izan behar dugu EZLNk duen bokazio nazionala gauzatzea ia-ia ezinezkoa dela Mexiko bezalako herrialde batean; mugimendu indigena eta maila nazionalako mugimendu izatearena kasik ezaugarri bateraezinak direlako. Arrazoia azaldu dugu lehenago ere. Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikako estatuak espainiar kolonialismoaren ondorio dira eta, hortaz, beren muga politikoak kolonoek arbitrarioki ezarritakoak dira, artifizialak. Azken hauek ez datoz inondik inora bat lurraldearen berezko izaerarekin ez eta kulturek edota etniek markatzen dituzten mugekin. Hala, Mexiko osoan elkarren artean antzik ez duten hamaika indigena talde edo tribu nahasten dira. Maiak dira batzuk, tzotzilak beste batzuk, tzeltalak... eta abar. Horietako etnietako bakoitzak bere ohiturak, bere kultura, bere hizkuntza, bere janzkera... eta, beraz, bere identitate propioa ditu, gainerakoetatik bereizten dutena. Ondorioz, esan dezakegu Mexikoko indioek ez dutela kontzientzia bateraturik (mugimendu zapatistak errotu nahi duen kontzientzia bateratu hori). Ez dute euren burua Mexikoko indigenatzat jotzen, ez dute beren burua Mexikoko indioen balizko talde baten parte sentitzen. Aitzitik, eurak maiak, tzotzilak, tzeltalak... edo dena delakoak direla esango dute; ez, besterik gabe eta modu orokortuan, Mexikoko indigena. Horra hor mugimendu zapatistaren aspirazio nazionalarekin talka egiten duen errealitatea. 3.000 kilometro inguru dago Mexiko iparraldetik hegoalderaino. Pentsaezina da halako azalera nahasten diren komunitate indigena guztiak batu nahi izatea. Mediterraneo aldeko kulturek Europa iparraldekoekin bat egin zezaten eskatzearen pareko da hori.

Mugimenduak bere helburuak erdieste aldera proposatzen duen eraldaketa ere ez da benetan errealista eta bideragarria. Jakina da urtetako eskarmentuaren ondorioz, zapatistek konfiantza zeharo galdua dutela Gobernuarekin eta jada ez dutela instituzioetan sinesten. Orain arte euren eskubideak babestu ez eta zokoratuta eduki dituen sistema politikoa irauli eta, horren orde, eurek beren komunitateetako auziak kudeatzeko darabilten eredu proposatzen dute: *Juntas de Buen Gobierno*. Guztien berdintasuna bermatzen duen sistema asanbleario horizontala da; euren aburuz, gutxiengoaren ahotsak (nekazariak, emakumeak, indigenak...) entzunarazteko eta guztientzako duina izango den Mexiko justu bat eraikitzeke benetako alternatiba. Baina zapatistek Chiapasen soilik dute indarra eta, honetan, % 30 bakarrik da indigena. Mexikok beste 31 estatu ditu. Datuak ez dituzte aldeko. Ez



da oso errealista estatu bakar batean eta biztanleriaren % 30aren artean soilik arrakasta duen eredua proposatzea Mexiko osorako.

Indarrak bildu eta mugimenduarentzako babes berriak bilatze aldera, *La otra campaña* delako bira abiatu zutenez geroztik, Mexikoko masa sozial ezkertiarra zapatismora erakartzeko ahaleaginean dira mugimenduko militanteek. Erronka berri hau ere ez da, ez, oso bideragarria. Beste herrialde guztietan gertatzen den bezala, Mexikon ere ezker nahiko zatitua baitago; euren burua ezkertiarizat duten guztiak ez dira berdinak. Badira iraultzan sinesten duten ezker muturrekoak baina badira, baita ere, ezker instituzionalekoak direnak, egun indarrean diren instituzioetan sinesten dutenak, alegia. Hortaz, ezkerren baitako aniztasunari erreparatu beharko liokete eta egoki deriztote sektore jakin bat (edo bat baino gehiago) hartu jomugatzat. Hala, hurbilpen estrategia ere dagokion sektorearen ezaugarrietara egokitu ahal izango dute. Bestela, ezker osoa, masa sozial ezkertiar osoa, bateraturik, erakartzeak ezinezkoa dirudi.

Gobernuak urte hauetan guztietan mantendu duen jarrerak ere ahuldu du, pixkanaka, mugimendua. Mandatariek gerrillariekin akordioak sinatzeko saiakerak egin dituzten arren, ez dute inoiz indigenen eskubideak babesteko benetako konpromisorik hartu eta, hartu dutenean (San Andreseko akordioak), ez dute hitzartutakoa bete. Tokian tokiko arazo isolatutzat harturik, mugimendu zapatistari ez ikusiarena egin eta, bide batez, haien ekimenak estaltzea izan da agintariak baliatu duten estrategia.

Azken urte hauetan hedabideek zapatistekiko azaldu duten interes falta ere izan daiteke mugimenduaren balizko krisiaren beste arrazoi garrantzitsu bat. Behin eta berriz errepikatu eta azpimarratu dugun moduan, mundu mailako hedabideak izan dira, hasieratik, mugimendu zapatistaren aliatuak. Zapatistek jakin badakite irratiei, telebistei eta berriki Interneti esker lortu dutela euren mezua eta aldarrikapenak lau haizetara zabaltzea. Hasieratik jabetu ziren hedabideen botereaz. Horregatik, 1994ko urtarrileko altxamendua burutu bezain laster, Chiapasera hurbilduriko kazetarien aurrean mintzatzea (lehenengo elkarrizketa publikoa) izan zen egin zuten lehenengo gauza. Orduantxe agertu zen, lehenengo aldiz, Marcos komandanteordea eta orduantxe azaldu zioten munduari zein zen Chiapaseko indigenen (biztanleen % 30) egoera eta zein beraien patua errealitatea irauli ezean.



Baina hedabideekiko harremana komenientziazkoa izan da, noski. Komunikabide kate handiek ez baitzioten indigena talde bati halako protagonismorik aitortuko *musu-truk*. Mugimendu honen ezaugarri askok erakarri zuten hasiera-hasieratik mundu mailako kameraren arreta (audientzia berma zezaketen ezaugarriak).

Hasteko, gogoratu behar dugu zapatismoa SESBren desegitearen garaian eta gobernu komunista asko erori zireneko garai berean sortu zela mugimendu gisa. Nazioartean begietan, berria izan zen; ordura arteko mugimendu marxista eta sozialistetatik bereizten zen mugimendu

indigena zelako. Berritasun eta desberdintasun faktore hori erakargarria izan zen mundu mailako hedabideentzat, zalantzarik gabe.

Bestalde, identitate ikurtzat baliatzen duten estetikak ere konkistatu ditu nazioarteko kamerak. Eskuz eginiko jantzi koloretsuak buru-estalkiekin konbinatzea ordura arte beste inongo gerrillatan ikusi ez zen zerbait baitzen, berezko ezaugarria. Aurpegia estaltzea, segurtasun neurria ez ezik, mezu sinbolikoa ere bada: “*Si en cinco siglos no nos han mirado a la cara, ¿por qué lo van a hacer ahora?*”, diote.

Odola ez isurtze horrek ere bereizi du mugimendu zapatista gainerako gerrilla latinoamerikarretatik eta, nolabait, gizartearen eta komunikabideen aldetik oniritzia irabazi dute horrekin.

Baina, dudarik gabe, mugimendua mediatizatzeko faktore erabakigarria izan da Marcos komandanteordea edo Ramona komandantea bezalako lider karismatikoen presentzia. Euren identitatea ezkutua izatea, Gobernuak hildako indigenen izenak bere egin izana, diskurtso hunkigarriak... guztiak ezaugarri erakargarriak dira kazetariarentzat.

Orain, ordea, 14 urte geroago, hasiera batean mundu mailako kamerak konkistatu zituzten faktore edo ezaugarri horiek guztiak zaharkiturik geratu dira berritasuna eta morboa bilatzen duten komunikabide kate handien begietan. Pixkanaka, mugimenduak bere aliatu handienaren arreta eta fideltasuna galdu du eta, horrek, zalantzarik gabe, asko ahuldu du.

Hala ere, eta amaitzeko, mugimendu zapatistaren ezintasunen arrazoi nagusia bere baitan dago. Indarra falta zaio. Grina falta zaio. Bere izaera anbiguo horrek (gerrillaritzat dute euren burua, armekin entrenatzen dira, armak dituzte, baina ez dituzte erabiltzen) bere alde egin du maila batean, bai; odola isuri ez izanak beste gerrilletatik bereizi dituelako eta gizarte mundialaren babesa eta enpatia lortu dituztelako. Baina kalte ere egin die anbigutasunak, zalantzazkoa delako euren indarra.

Marcos komandanteordeak dio armak hartu zituztenetik Gobernuak, zuriak alegia, gutxienez errespetatu egiten dituztela indigenak, errespetua zor dietela orain. Baina historiak askotan frogatu duenez, arerioaren aldetiko errespetua ez da nahikoa izaten nork bere helburuak erdiesteko bidean.

## 8. Bibliografia

### Liburuak:

- DE LA GRANGE, B. eta RICO, M.: *Subcomandante Marcos, la genial impostura*, Madril, Aguilar, 1998.
- MUÑOZ RAMÍREZ, G.: *EZLN: 20 y 10, el fuego y la palabra*, Bilbo, Virus Editorial, 2003.
- VÁZQUEZ MONTALVÁN, M.: *Marcos, el señor de los espejos*, Madril, Ediciones El País, 1999.

- TELLO DÍAZ, C.: *Chiapas: la rebelión de las cañadas*, Madril, Acento, 1996.
- HARVEY, N.: *La rebelión de Chiapas: la lucha por la tierra y la democracia*, Mexiko DF, Ediciones Era, 2000.

### **Web orrialdeak:**

- es.wikipedia.org (2008-03-27)
- www.ezln.org/mx (2008-03-27)
- www.enlacezapatista.ezln.org/mx (2008-04-02)
- www.patriagrande.net/mexico/ezln/index.html (2008-04-06)
- www.yucatan.com.mx/especiales/revolucion (2008-04-10)
- www.nodo50.org (2008-04-12)
- www.gob.mx (2008-04-12)
- www.radioinsurgente.org (2008-04-12)
- www.indymedia.org (2008-04-12)
- www.argia.com/argia-astekaria/1845/atalak/erreportajea (2008-04-17)
- www.elmundo.es (2008-04-21)
- www.elpais.com (2008-04-21)
- www.elpais.com/articulo/internacional/subcomandante/Marcos/cumple/medio/siglo/elpuint/20070719elpepuint\_7/Tes (2008-04-21)
- www.elpais.com/articulo/elpporint/20060102elpepiint\_16/Tes (2008-04-21)
- www.cidob.org/es/documentacion/biografias\_liderespoliticos/America\_del\_norte/mexico/subcomandante\_marcos (2008-04-22)
- sup-marcos.blogspot.com/ (2008-04-22)
- news.bbc.co.uk/hi/spanish/latin\_america/newsid\_3359000/3359093.stm (2008-04-22)
- www.uv.es/~reguera/representacion/chiapas.htm (2008-04-22)
- independent.typepad.com/elindependent/2007/11/el-subcomandant.html (2008-04-22)